



Buruntzaldea 07-08: Irakasleen hizkuntza-prestakuntza hobetzeko mintegia

- XEHETASUNAK

- **Gaia:** jatorrian Koordinazio Batzordean landu izan den gaia “familia bidezko transmisioa” da, edota, zehatzago oraindik, “gurasoen hizkuntza ohiturak edo jokaerak”. Zenbait pauso eman dira bi urteotan gai hori ikastetxe bidez gurasoei begira lantzen eta ikusi da, komenigarriago dela gaia pixka bat orokorrago planteatzea. Ikastetxeek, oro har, hizkuntza helburuak eta planteamenduak izan badituzten arren (askotan ikastetxearen helburu nagusien artean daude!), gero gehienetan ez dizkiete hauek gurasoei azaltzen. Eta ez dizkiete azaltzen, ez da horretaz beraiekin hitz egiten seguruenik (Batzordearen hipotesia) *hizkuntzaren kontuak* deserosoak direlako edo irakasle gehienek aurreikusten dutelako, gai honetan zenbait gurasoen segun zein galderen aurrean ez dutela jakingo zer erantzun, edo tentsioa sortuko dela bileran, eta hau ez zaie gertatzen beste gai batzuetan (alderdi pedagogikoak...). Eta beraz, hizkuntza aldetik asko *egin* arren, gai hori pixka bat *tabu* da gurasoekiko harremanean. Eta ez bakarrik gurasoekiko harremanean, kasu batzuetan baita lankideekin ere (hortaz hitz egiteak neurri batean norbere “hizkuntza koherentzia” edo horrekin lotutako gauzak mahaigaineratzea ekar dezakeelako, eta hori ere ez da eroso). Horregatik planteatzen da mintegia *irakasleen hizkuntza-prestakuntza hobetzeko mintegi* gisa, eta ez soilik gurasoen hizkuntza jokaeren edo transmisioaren inguruan.
- **Hizkuntzaren inguruko zein prestakuntza?** Batzordearen esperientziak adierazten du ez dela komeni aurrez suposatzea hizkuntzaren kontuan *zein* den ikastetxeari kezkarri zaion gaia, eta beraz zein gairen inguruko prestakuntza nahi luketen irakasleek. Alderantziz, esperientziak adierazi digu eskaini beharrekoak tresnak, mezuak edota oinarri teorikoak direla, irakasle, zuzendari eta gainerakoak gai hauetan *eroso* eta *ziur* sentitu ahal izateko. Hipotesia da (Batzordearena hau ere), erosotasun edo ziurtasun bat lortzen bada gai hauetan, eta tresna praktikoak eskura izanez gero, ikastetxeak erabakiko duela zein une diren egokiak gurasoei ikastetxearen hizkuntza planteamenduen berri emateko, edota, egoki ikusiko balute, baita gurasoek *etxean* ikasleei ematen dioten *ereduaz* hitz egiteko edo aholkuak emateko. *Irakasleen etxeko lanetan* edo beste hainbat gaietan aholku eskatzen badiete ematen dieten bezala. Beraz, hizkuntzaren gaia *tabu* xamar dela asumitzen badugu (eta badira arrazoiak horretarako), ibilbide bat egin behar litzateke *mintegian* zehar irakasle taldearekin gai hau *natural* xamar hitz egitera iritsi ahal izateko. Ibilbide hori egiteko prestakuntza litzateke *mintegi* hau. Helburua litzateke beraz, mintegi hau egiten duen irakasle taldeak gai honen inguruko *beraien premiak* non dauden detektatzea edota adostea (horren lanketa dinamizatu behar da mintegian), eta horiei erantzuteko zer behar den zehaztea (eta posible balitz, hauek prestatzea edo lokalizatzea): zein material, zeri buruzko azalpenak... Modu horretan, mintegia egiten duen irakasle-taldeak, atera beharko luke gai honi aurre egiteko



beste ziurtasun eta beste gogo batekin. Bai irakasle banako gisa eta bai, talde diren neurrian, ikastetxearen funtzionamenduan proposamen berriak egiteari begira ere.

- **Non, noiz, nola emango da?** Gauden datetan, eta gaia landu den bezala, *mintegi* hau ezin da sartu IRALE-ko deialdiko beste ikastaroen ohiko prozeduran. Hala ere, Hezkuntza Saileko ordezkariak ere lantaldean parte hartzen dutenez, eta beraiek ere horrelako zerbaiten beharra ikusten dutenez, saiakera bat egingo da aurtengo udazkenean lehen saio bat egiteko, nolabait esateko *proba gisa*. Beraz, lehen *mintegi* honetan matrikulatzeko aukera ez du edozein irakaslek izango, alderantziz: Koordinazio Batzordetik (konkretuki Buruntzaldeko euskara zerbitzuetatik), zuzenean planteatu zaie aukera berri hau transmisio programan jadanik parte hartzen ari diren ikastetxeei (13), eta hauetatik 2-3k interesa azaldu dute mintegia egiteko. Ikastetxe horietako bat edo bi hautatuko lirateke Koordinazio Batzordean eta lehen *mintegia* horiekin egin. Irakasle hauen matrikulazio prozesuaz zuzenean Hezkuntza sailetik arduratuko dira. Saioak ikastetxean bertan egingo lirateke (egunak eta orduak zehazteke). Dena den, finantziarioari dagokionez, mintegiaren bideratzaileak edo ikastaroen emailak IRALE-ko ohiko ikastaro baten ordaina jasoko du. Horrez gain, mintegian planteatzen diren galderak edo kezak (eta erantzun posibleak) orain arteko esperientziarekin ahalik eta ondoen ezkontzeko, eta galdera hauek bertako kideekin eztabaidatu ahal izateko, mintegiaren irakasle edo bideratzailea Koordinazio Batzordearen bileretara joango da (*nondik norako*en dokumentuan “Buruntzaldeko Koordinazio Batzordean parte hartzea” zioen puntua da hau, hain zuzen). (hilabetean edo bi hilabetean behin biltzen da Batzordea; zehazteke dago zenbat bileretara joango litzatekeen).
- **Irakasle edo bideratzailearen ezaugarriak:** mintegia, hortaz, berria izango da, eta modu praktiko batean enfokaturia (hau da, irakasleekin batera “egiten” edo “osatzen” joatekoa, ez zerbaiti buruz “klaseak” eman), baina emailak bai taldeen dinamizazioan eta bai transmisioaren edota ikastetxeen normalkuntza gaietan gutxieneko esperientzia bat izatea beharrezkoa da. Hori gabe zaila suerta baitaiteke ikastetxeekin gaiaren klabeetara erraz iristea eta mintegiak iraungo duen denboran gutxieneko erantzun edo material batzuek prestatzea.
- **Aurrera begira:** aipatu bezala, mintegi hau lehen proba bat izango da, ahal izanez gero 2007ko urria-abendua artean egingo dena. Bere emaitzak Koordinazio Batzordean baloratuko dira eta horren arabera hurrengo urratsak proposatu. Dena den, ahal izanez gero, helburua litzateke 2008-09 ikasturtean IRALeko eskaintza orokor bidez mintegi edo ikastaro hau eskaini ahal izatea.